



LEGEZKOTASUN TXOSTENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKOA, IGNACIO ALDECOA KULTUR ETXEA ETA MUSEOETAKO NAHIZ KULTURA ETA KIROL SAILARI ATXIKITAKO ZERBITZUETAKO LIBURUTEGIAK EUSKADIKO IRAKURKETA PUBLIKOKO SAREAN MANTENTZEKO LANKIDETZA-HITZARMENARI BURUZKOA

NBNC\_CCO\_6048/23\_11  
IL DDLN 47/2024

## I. AURREKARI JURIDIKOAK ETA DOKUMENTAZIOA

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailak goiburuan aipatutako hitzarmenari buruzko nahitaezko Legezketasun txosten eskaera egin du Tramitagune tresna informatikoaren bidez.

Lankidetzaren hitzarmenaren testuaren zirriborroaz gain, txosten eskaerarekin batera, sail sustatzaileak honako dokumentazio hau helarazi du:

- Lankidetzaren hitzarmenaren testuaren zirriborroa
- Lankidetzaren hitzarmenaren justifikazio-memoria.
- Sailaren txosten juridikoa.
- Gobernu kontseiluaren erabaki proposamena.

Txosten hau Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeke ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1.b) artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 7.1.c, 9 eta 13.1 b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera egin da; izan ere, artikulua horien arabera, Zerbitzu Juridiko Nagusiari dagokio legezketasunari buruzko txostena egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoek edo erakunde instituzionalek izenpetu behar badituzte beste hauekin: Beste administrazio publiko batzuk eta horiei lotuta edo horien mende dauden zuzenbide publikoko erakundeak.

Aurrekoarekin lotuta, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 15.1.a artikulua gaitzen du txosten hau egiteko eskumena; izan ere, artikulua horrek Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzari esleitzen dio legezketasunaren barne-kontrola,

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ

tef. 945 01 86 30 – Fax 945 01 87 03



besteak beste, Sailek eta erakunde autonomoek hala eskatzen dutenean, haien eskumenekoak diren arazoei buruzko irizpenak edo txosten juridikoak lantzea.

Proposatzen den ekimenaren aurrekari bezala, esan beharra dago 2018ko abenduaren 27an lankidetzeta-hitzarmena sinatu zela, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Arabako Foru Aldundiaren artean, Ignacio Aldecoa Kultur Etxea eta Kultura eta Museoetako nahiz Kultura eta Kirol Sailari atxikitako zerbitzuetako liburutegiak Irakurketa Publikoko Sarean integratzeko, lau urteko indarraldiarekin. Aurreko lankidetzeta-hitzarmenaren indarraldia amaitu eta luzapenik sinatu ez arren, bi aldeek mantentzeko borondatea azaldu dute eta horretarako erabaki dute hitzarmen hau sinatzea.

## II. LEGEZKOTASUNA

### 1.- Ekimenaren justifikazioa

Sail sustatzaileak egindako memorian ondo islatzen da ekimenaren justifikazioa, Euskadiko Liburutegiei buruzko urriaren 26ko 11/2007 Legean oinarrituta. Izan ere, aipatu Legeak III. tituluko 13.4 artikuluan ezartzen duenez, Euskadiko Irakurketa Sare Publikoak helburu nagusia du herritarrei beren kultura- eta informazio-erregistroetarako sarbidea ematea, bai eta erabilera publiko orokorreko kanpoko liburutegietako zerbitzuetan eskuragarri dauden informazio- eta kultura-dukietarako sarbidea ahalik eta zabalena izatea ere. Era berean, 13.2.b) eta 19. artikuluetan aurreikusten du erabilera publiko orokorreko liburutegiak Euskadiko irakurketa publikoko sarean sartzea, dagozkien hitzarmenen bidez.

### 2.- Hitzarmenaren xedea.

Aztergai daukagun Hitzarmen proposamen xedea Euskadiko Administrazio Orokorraren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetzarako eta funtzionamendurako araubidea ezartzea da, Ignacio Aldecoaren Kultur Etxeko eta Museoetako nahiz Kultura eta Kirol sailera atxikitako liburutegiak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean (aurrerantzean, EIPS) integratuta mantentzeko, eta online "Euskadi.eus" domeinutik euskadiko Liburutegien Legearen 17. artikuluan definitutako liburutegi-zerbitzuak ematen jarraitzeko.

Horrek esan nahi du liburutegiak kudeatzeko sistema informatiko komunean mantentzen jarraitu behar dela (gaur egun, AbsysNet, 2.2 bertsioa).

### 3.- Ekimenaren izaera juridikoa

Hitzarmenak izaera administratiboa du, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen (aurrerantzean, SPAJL)47.2.a artikuluan aipatzen den motakoa da.

Ondorioz, SPAJL-ko atariko tituluaren VI. kapituluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren XIII. kapituluan xedatutakoaren arabera izapidetu da.

### 4.- Esku-hartzaileen eskumen-gaikuntza

Sinatzaileen eskumen materialari dagokionez, alderdiak eskudunak dira. Bestaldetik, Gobernu Kontseiluaren erabaki-proposamenean, hitzarmena baimentzeaz gain, berariaz Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari ahalmena ematen dio lankidetzahitzarmenari adostasuna adierazteko eta sinatzeko, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 62.1 artikuluen arabera.

## III. EDUKIA

Proposatutako hitzarmenak sarrera bat, bost azalpen, zortzi estipulazio eta bi eranskinak ditu. Bere edukia bat dator SPAJL-ko 49. artikuluan jasotako gutxieneko edukiarekin.

Hala ere, hainbat alderditan idazkera aldatzea beharrezkoa jotzen dugu, batez ere tratamenduaren arduraduna eta tratamenduaren eragilea identifikatzerakoan. Hain zuzen, honako hau azalduko dugu:

- Euskarazko bertsioan nahastu egin da tratamendu-eragilea tratamendu-arduradunarekin, eta beraz ez dago behar bezala jasota tratamendu-eragilea. Hori gertatu da hitzarmenaren zirriborroaren 6., 16., 17. eta 20. orrialdeetan.
- Bestaldetik, 20. orrialdean, d) eta e) hizkien edukia trukatuta dago euskeraz eta gaztelaniazko bertsioetan.
- Azkenik, hirugarren estipulazioan, atalen zenbaketan jauziak daude (1,2,4,6,7,8), eta beraz berriro zenbatu behar dira atalak.

#### IV-ONDORIOA

Adierazitako ohartarazpenak eginda, hitzarmen-proiektua bat datorrela araubide juridikoarekin ondorioztatzen dut.

Hori da igortzen dudan txostena. Edonola ere, Zuzenbidean hobeto oinarrituta legokeen beste edozeinen menpe jartzen dut. Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan.

Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Juridiko Nagusiko letradua.